

Txioen itzulpen automatikoa gaztelaniatik euskarara

Erabiltzailearen Eskuliburua

2014 - azaroa

Egilea:

Urtzi UGARTE LARRARTE

Aurkibidea

| | |
|---|-----------|
| 1. Instalazioa | v |
| 1.1. Sarrera | v |
| 1.2. Perl..... | vi |
| 1.2. Exekutatzen | vii |
| | |
| 2. Txio Itzultzailearen Erabilera | ix |
| 2.1. Lehenengo urratsak | ix |
| 2.2. Txio bilatzailea | x |
| 2.3. Txio baten itzulpena eta aukera ezberdinak | xiii |
| 2.4. Fitxategietako txioak itzuli | xv |


1.

Instalazioa

1.1 Sarrera

Ondorengo urratsak jarraituz Txio Itzultzailea instalatu ahal izango duzu zeure ordenagailuan. Aplikazio hau Windows makina batean sortu da eta beraz eskuliburu honetan bertan instalatuko dugu. Instalazioa arina da eta ez ditu bestelako programak asko erabiltzen, baina beharrezkoak dituenak, Perl, instalatua izan behar dugu.

Jaso duzun aplikazioaren karpeta begiratzeko badugu fitxategi ezberdinak aurkituko ditugu, beraz lehenik egiaztatu ondorengo fitxategiak dituzula instalazioa hasi aurretik.




Txio Itzultzaile aplikazioaren fitxategiak

Aplikazioa exekutatzeko erabiliko dugun fitxategia ‘TxioItzultzailea.jar’ izango da. Kontuan izan behar dugu baita ‘Fitxategiak’ izeneko karpeta, non bertan gordeko diren itzulita ditugun txioak.

1.2 Perl

Aplikazioak txioak itzuli ahal izateko Perl lengoia erabiltzen du, hau dela eta ordenadorean Perl lengoia exekutatzeko beharrezkoa den aplikazio bat instalatu beharko dugu lehenbizi. Instalazioa hasi aurretik begiratu ea Perl dagoeneko instalatua dagoen zure ordenagailuan: Sakatu Windows botoia -> exekutata/bilatu -> ‘CMD’. Bertan idatzi ondorengo: `perl -v` komandoa.

`Perl -v`



```
Símbolo del sistema
Microsoft Windows [Versión 6.3.9600]
(c) 2013 Microsoft Corporation. Todos los derechos reservados.
C:\Users\Mr.U>perl -v
This is perl 5, version 18, subversion 2 (v5.18.2) built for MSWin32-x64-multi-t
hread
Copyright 1987-2013, Larry Wall
Perl may be copied only under the terms of either the Artistic License or the
GNU General Public License, which may be found in the Perl 5 source kit.
Complete documentation for Perl, including FAQ lists, should be found on
this system using "man perl" or "perldoc perl". If you have access to the
Internet, point your browser at http://www.perl.org/, the Perl Home Page.
C:\Users\Mr.U>
```

Goiko irudian agertzen den emaitza lortzen baduzu, Perl instalatua dagoela esan nahi du, eta beraz pasa instalazioaren zati hau eta jarraitu **1.3 Exekuzio** atalera.

Perl ez badago instalatua, errorea emango dizu goian idatzi dugun komandoak. Perl instalatzeko ‘StrawberryPerl’ izena duen Perl ingurunea erabiliko dugu. Horretarako sartu ondorengo web-gunean eta StrawberryPerl-en azken bertsioa deskargatuko dugu dohain. Web-gunea honakoa da: <http://strawberryperl.com/>


Bi bertsio ezberdin daude, 32bit eta 64bit-ekoak. Aproposena deskargatu ondoren ‘strawberry-perl-5.20.1.1-64bit.msi’ edo ‘strawberry-perl-5.20.1.1-32bit.msi’ izeneko fitxategia izango dugu eskura.

Fitxategi hau exekutatu eta instalatu ondoren Perl erabiltzeko prest egongo gara. Ongi instalatu dugula egiaztatzeko goian egin dugun proba berdina egin, Perl bertsioa ikusteko. Goian agertzen den irudikoaren antzekoa bada ondo instalatu dugula esan nahi du.

1.3 Exekutatzen


TxioItzultzailearen fitxategi denak eta Perl instalatuak baditugu, aplikazioa exekutatzera joko dugu. Java-ko aplikazio bat denez komando lerrotik exekutatu behar dugu. Horretarako Windows -> exekutatu/bilatu -> 'CMD' idatzi.

Exekutatu nahi dugun fitxategia TxioItzultzailea.jar da, beraz fitxategi hau aurkitzen den helbidea lortu behar dugu. Modu errazena hau lortzeko, eskuineko botoiaz klik egin eta 'Propietateak' botoiari klik egin ondoren, agertzen den informazio atalean, helbidea aurkitu eta kopia egingo dugu.



Helbidea kopiatu ondoren, komando lerroa joango gara, eta bertan honakoa idatziko dugu: ‘CD helbidea’ non helbidea guk kopiatua dugun testu zatia den. Hau egiteko era errazena, CD idatzi ondoren eskuineko botoia sakatu eta pegatzeko eman.


```
CD C:\Users\...\TxioItzultzailea...
```



```
Símbolo del sistema
Microsoft Windows [Versión 6.3.9600]
(c) 2013 Microsoft Corporation. Todos los derechos reservados.
C:\Users\Mr.U>cd C:\Users\Mr.U\Desktop\KAProiektua\TxoriItzultzailea\Interfaztxi
kia
C:\Users\Mr.U\Desktop\KAProiektua\TxoriItzultzailea\Interfaztxikia>
```

Komando lerroan gure helbidea idatzi ondoren fitxategia exekutzeko prest gaude. Horretarako ondorengo lerroa idatziko dugu:

```
java -jar TxioItzultzailea.jar
```



```
Símbolo del sistema - java -jar TxioItzultzailea.jar
Microsoft Windows [Versión 6.3.9600]
(c) 2013 Microsoft Corporation. Todos los derechos reservados.
C:\Users\Mr.U>cd C:\Users\Mr.U\Desktop\KAProiektua\TxoriItzultzailea\Interfaztxi
kia
C:\Users\Mr.U\Desktop\KAProiektua\TxoriItzultzailea\Interfaztxikia>java -jar TxioItzultzailea.jar
```

Lerro hau exekutatzean aplikazioa martxan jarriko da.



2.

Txio Itzultzailearen Erabilera

2.1 Lehenengo urratsak



Txori itzultzailearen aplikazioa martxan jartzean bi aukera nagusi ikusiko ditugu bertan. Lehen hizkuntzen tratamendua izango da, non bertan ze hizkuntzetatik ze hizkuntzara itzuli nahi dugun aukeratzeko aukera ematen baitigu. Aukera hau aplikazio osoan zehar gordeko du, beraz hizkuntza aldatu nahi izanez gero, menu nagusira itzuli beharko gara. (Aplikazio honek, gaur egun, gaztelaniatik euskarara bakarrik onartzen du, etorkizunean aukera berriak gehituko direlarik.)

Bigarren aukera berriz sarrerako datu ezberdinak aukeratu ahal izango ditugun botoiak aurki ditzakegu. Lehenengoa txio bilatzaile bidez izango da eta bigarrena fitxategien bidez.


2.2 *Txio bilatzailea*

The screenshot shows a software window titled "Txori Itzultzailea: Bilaketak". At the top, there is a search bar labeled "Bilatu twittak" with an empty text input field. Below the search bar, there are four radio buttons for filtering: "Pertsonalak", "Hashtag", "Testua" (which is selected), and "Aipatu". To the right of these buttons is a "Bilatu" button. Below the search bar is a section labeled "Emaitzak:" with a large empty rectangular area. Below this is a section labeled "Informazioa:" with a "Txori baten itzulpena egin" button. At the bottom of the window is a "Txori denak itzuli automatikoki" button.


Txio bilatzailearen bidez, Twitterreko txioak aurki ditzakegu eskaintze dituen aukeren bitartez. Horien artean pertsonalak, erabiltzaile jakin baten txioak, hashtag bidezko txioak, non gai zehatz bati buruzko txioak aurkituko dituen, ondoren aipamenezko txioak bilatu ditzakegu, erabiltzaile baten izena

aipatzen duten txioak hain zuzuen, eta azkenik testu arrunta bilatzeko aukera eskainiko digu. Azkeneko aukera honekin beste txioak ere bila ditzakegu ezer zehaztu beharrik gabe. Aurkitu nahi dugun txioaren testua sartu ondoren ‘bilatu’ botoia erabiliko dugu.


Emaitzak beheko laukian agertuko zaizkigu. Idatziak izan diren dataren arabera daude ordenatuak, berrienak goian direlarik, eta bilaketak 15 txio itzuliko dizkigu.




Txio pertsonalak eta hashtag bidezko bilaketan adibideak goian eta testu arrunt bidezko bilaketa baten adibidea behean



Jarraian itzuli nahi den txioa aukeratu eta klik egin listatik. Honek itzultzeko aukera emango digu eta listaren azpian txioaren informazioa erakutsiko digu aplikazioak. Txio bat itzultzeaz gain, bilaketako txori denak itzultzeko aukera ere badago. Kontuan izan aukera honek denbora emango duela exekutatzeko eta emaitzak **1.1 Sarrera** atalean ikusi dugun bezala, Fitxategiak karpetan gordeko dira *EmaitzaAUTOMATIKOAK.txt* izeneko fitxategian.



Txio bat itzultzera jotzen badugu bestalde, itzultzeko aukera ezberdinak ikusiko ditugu.



2.3 Txio baten itzulpena eta aukera ezberdinak

Txio bat aukeratu ondoren itzultzeko, leiho berri bat irekiko zaigu, eta bertan aukeratu dugun txioaren testua agertuko da. Testu hau jatorrizkoa izango da, hau da, berTxioak ez dira agertuko, baizik eta jatorrizko txioko testua. Ondoren testu hau tratatu egin beharko dugu, testu informala ala formala den jakiteko, eta hori jakinik itzultzeko aukera ezberdinak agertuko zaizkigu.


The screenshot shows a web interface for translating a tweet. At the top, there is a text area labeled 'Testu originala:' containing the text: 'La gente no entiende que se puede leer un libro dos, tres, cuatro y cinco veces, en diferentes etapas. Y lo que lees nunca será lo mismo.' Below this is a text box for 'Aurreikusitako hizkuntza:' with the value 'Gaztelaniaz dago testua.' There are input fields for 'Hashtag:' and 'URL edo bestelako Linkak:'. A 'Testua Tratatu' button is visible. To the right, there is a section for 'Txoria formala da. Normalizatu?' with radio buttons for 'Bai' and 'Ez', where 'Ez' is selected. At the bottom, there are three buttons: 'Itzuli testu Informala', 'Itzuli testu Formala', and 'Hitzez hitz itzuli'. The label 'ITZULPENA:' is visible at the bottom left.

Txio formal bat aurkitu dezakegu goiko adibidean eta txio informa bat behekoan, bakoitzak eskaintzen dituen itzulpen aukera ezberdinekin.

The screenshot shows the same web interface as above, but with a different tweet. The 'Testu originala:' text area contains 'me volvés loco !'. The 'Aurreikusitako hizkuntza:' is 'Gaztelaniaz dago testua.'. The 'Txoria informala da. Normalizatu?' section has radio buttons for 'Bai' and 'Ez', where 'Bai' is selected. The other elements, including the 'Testua Tratatu' button and the 'ITZULPENA:' buttons at the bottom, are the same as in the previous screenshot.

Txio formalak normalizatu ala ez aukeratu dezakegu, guk lortu nahi dugun emaitzaren arabera, baina aplikazioak ez normalizatzea aholkatzen du. Bestalde, txio informaletan derrigor normalizatzen du eta ematen dizkigun aukerak dira esaldi osoa itzuli ala hitzez hitz egin.

Testuaren itzulpen modua aukeratu ondoren aplikazioak txioa itzuliko du eta emaitza beheko laukian agertuko zaigu. Hitzez hitzeko itzulpenean, txio informaletan, itzulpen arruntak baino gehiago irauko dute, baina lehiaren behealdean agertuko da itzultzeko geratzen diren hitzak.



Txori Itzultzailea: Itzuli txio bat

Testu originala:
Ya he terminado el proyecto de fin de Grado!! #proba #titzuli

Aurreikusitako hizkuntza: Gaztelaniaz dago testua.

Hashtag: proba
titzuli

URL edo bestelako Linkak:

Txoria formala da.
Normalizatu?
 Bai Ez

ITZULPENA: Itzuli testu Informala Itzuli testu Formala Hitzez hitz itzuli

Jadanik bukaerako proiektua amaitu dut Gogoz!! Zintzoa

Gorde fitxategi batean

Testuaren itzulpena lortu ondoren, emaitza gordetzeko fitxategi batean beheko botoia dugu. Emaitza hauek Fitxategiak karpeta 'EmitzaIndibidualak.txt' fitxategian gordeko dira.

2.4 Fitxategietako txioak itzuli

Sarrerako datu bezala, aplikazioak txio bilatzailea erabiltzeaz gain, fitxategietan gordetako bai txio eta bai txio identifikadoreak ere jasotzeko gai da. Menu nagusitik iritsiko gara aukera honetara eta bertan leiho berri bat agertuko zaigu.

Txori Itzultzailea: Fitxategiak


Aukeratu fitxategia (.csv edo txio kodeak):

Aukeratutako fitxategiaren izena:

Fitxategiko txioak:

Formalizatuta itzuli?
 Normalizatzaile arrunta Hitzez hitz
 Normalizatzaile arrunta

'Aukeratu' botoia sakatuz gure ordenagailuko fitxategiak bilatzeko aukera emango digu. Kontuan izan, fitxategi hauek .txt eta .csv formatua izan behar dutela.



Ezkerrean txioen fitxategia dugu eta eskuinean txioen identifikadoreak dituen fitxategia

Txioak jaso ondoren itzultzera jotzen badugu normalizatzailea erabili ala ez aukera izango dugu. Fitxategiak osorik itzultzeko '*Itzuli fitxategiak*' botoia erabiliko dugu eta honek guk aukeratutako fitxategien izen berdina baliatuz gordeko ditu berriz ere Fitxategiak karpetan '*Itzulita_*' etiketarekin fitxategi izenaren hasieran.

